

Hainbeste ahalegindu behar naiz euskalduna izateko? Euskal(dun)tasuna(k) aztertzen

Ion Andoni del Amo Castro

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

IkasGura ikerketa taldea

ionandoni.delamo@ehu.eus

Laburpena

Identitatea etengabe eraikitzen da, eta ez dago euskal identitate singular bat, euskaldunak izateko modu anitz daude eta. Testuinguru historikoak, Euskal Herrikoak zein kanpokoak, ezinbesteko markoa konfiguratu du, non euskal identitatea eta bere berrikuntzarako osagarriak, praktikoak eta teorikoak, birsortzen diren. Lan honek gure azken 60 urteko ibilbidea egiten du, alor kulturalaren eta identitarioan eman diren bir-konfigurazioak aztertuz, eta mendebaldeko gizarteetan eman direnekin lotuz. Etorkezunerako gako posible batzuk plazaratzen ere saiatu gara. Lanak gure ikerketa propioa hartzen du oinarri¹, beste lan batzuekin hizketan osatuta.

Gako-hitzak: Identitatea, Kultura, Euskal Herria, Nazionalismoa

Jasotze data: 2018ko otsailaren Sean.

Onartze data: 2018ko maiatzaren 11n.

Abstract

Identity is constantly being built, and there is no single Basque identity, there are many ways to be Basque. The historical context, both in the Basque Country and abroad, establishes an essential framework in which Basque identity and its complementary, practical and theoretical aspects of innovation are regenerated. This work focuses on our last 60-year history, analyzing the configurations provided in the field of culture and identity, and linking them with those of Western societies. We also try to suggest some possible future keys. The work is based mainly on our own research, complemented in dialogue with other works.

Keywords: Identity, Culture, Basque Country, Nationalism

1 Doktorego tesia (2014), geroago liburu formatuan argitaratuta (Del Amo, 2016)

1. PERSONALITY CRISIS²

Nor gara gu? Zenbat gara? Identitatea kontzeptu korapilatsua izan da gizarte zientzietan, eztabaida luzeetan murgilduta. Batez ere, teoria postmodernoez gogor astindu dutenetik, likido geratu arte.

Izan ere, nortasuna bi eratako materialek osatzen dute (Azkarraga, 2011). Alde batetik, norberaren ezaugarri partikularrak: karakteriologikoak, psikologikoak, norbere biografia partikularra, harreman intimoen sare pertsonala. Bestetik, pertenezia sozialak, partekaturikoak: talde eta kolektibo sozialekin identifikazioak (generoa, klasea, nazioa, futbol taldea, profesioa, hizkuntza-komunitatea...). Sozialki partekaturiko zati horrekin gertatzen ari dena interesatzen zaigu nagusiki, eta horren gainean Joseba Azkarragak (2011: 113-114) zera apuntatzen du:

- a) *Pertenezia kolektiboak 'eredu kultural' bat partekatzea ohi dakar (sinesmenak, erritualak, dogmak).*
- b) *Norbanako guztiok kategoriatuak baina gehiago daramagu geure barruetan (euren artean kontraesankorrak ere izan daitezke), eta kategoriatuak batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak/ikusgarriagoak dira.*
- c) *Identitate-oin batzuk lo, edo erdi lo, egon daitezke –«identitate potentzialak», eta beste batzuk oso aktiboak izan daitezke –«identitate politizatuak»–. Azken hauetan, identitate-oin bat azpimarratzen da garrantzitsuena bezala, ekintza kolektiboa antolatzeko oinarri gisa hartuko da: zapatisten mugimenduak identitate etnikoa politizatu zuen 1994an; mugimendu gay-lesbikoak 70-80 hamarkadan; euskal nortasunak XIX. mende bukaeran forma politiko-modernoak eman nahi izan zion bere aldeko defentsari (abertzaletasunaren sorrera).*
- d) *Pertenezia zirkulu ugartan esku hartzeak ez du zertan nortasun indibiduala ahuldu, kontrakoa baizik (zenbat eta pertenezia gehiago orduan eta konbinazio errepikaezinagoa).*
- e) *Globalizazioarekin, «zentzu-mundu» horiek problematizatuak dira, prekarioak eta aldakorrak dira, batez ere gune urbanoetan.*

Identitateaz aritzea, beraz, giza esperientziaz aritzea da. Izan ere, inguru soziokulturalak dituen kontraesanek eta errekurtsioek ezinbestean dute inpaktu handia identitatearen eraikuntzan (Azkarraga, 2011). Giza nortasuna baldintza makro-estruturalen baitako produktua izanik, gaurko baldintzak zeintzuk diren aztertu behar da. Sakon egin dute Giddens, Beck, Bauman edo Castells bezalako autoreek. Apunte batzuk aipatuko ditugu hemen.

2 New York Dolls taldeko abestia, "New York Dolls" izen bereko diskoan (1973).

- a) Postmodernitate kulturala, edo kapitalismo berantiarraren logika kulturala (Jameson, 1998). Gaurko gizarteek konplexutasun moral, sozial eta kultural handiagoa dute, pluraltasuna, alegia, eta ezin dugu balore sistema bakar batez berba egin (Azkarraga, 2011). Identitateak gero eta zuhurragoak, prekarioagoak, aldakorragoak, behin-behinekoagoak izango lirateke. Horien eraiketa igaro da instituzioen lana izatetik norbanakoaren lana izatera; norberak bere biografia propioa pentsatu, eszenifikatu eta inprobisatu beharra dauka (Azkarraga, 2011; Bauman, 2005; Beck, 2006; Bennett, 2011).
- b) Lurraldegabetzea. Gaur ahulago dugu espazioarekiko lokarria, garrantzitsua izaten jarraitzen badu ere. Des-lokalizatu egin dira fluxu finantzarioak, komertzialak, teknologikoak, komunikatiboak, migratzaileak eta kulturalak. Globalizazioak badakartza merkatu, komunikazio-sare eta zirkuitu kultural berriak, espazio lokal eta nazionaletik haragokoak; objektu kultural “lurralde-gabetuak” ditugu, eta komunitate eta identitate konpartitu berriak (Azkarraga, 2011; Mugglenton, 2010). Dena den, aurrez aurreko interakzioak jarraitzen du garrantzitsua izaten eta oraindik hortxe ikasten dira baloreak, arauak; nagusiki hortxe eraiki ohi dira bizi-proiektuak, zentzuak eta identitateak (Azkarraga, 2011).
- c) Denboraren indibidualizazioa. Sozietate moderno berantiarrak iragana blokeaturik du eta etorkizuna jausi egin zaio: orainaldiaren gainkarga baino ez zaio geratzen, baita bere kontsumo obsesiboa ere. ‘Orain eta hemen’ formularekin eraiki beharko lirateke identitateak. Indibidualizatu egin dira iragana (memoria) eta etorkizuna (espektatibak), biografia indibidualek desplazatu egin dute historia kolektiboa eta etorkizunerako egitasmo politikoa (Azkarraga, 2011; Alonso eta Fernández, 2013). Ondorioz, identitate sozialak ahuldurik genituzke.
- d) Marko post-nazionala. Marko post-nazionalaz hitz egitera pasatu dira batzuk: ondasun material eta sinbolikoen zirkulazioa globalizaturik, pertenezia nazionalak lausotu omen dira, eta multikulturalismoak eta multietnizitateak auzitan jarriko lukete ‘gizarte nazionala’ bera, hein batean (Azkarraga, 2011).

Hau guztia kontutan hartuta, hainbat tesi dugu globalizazioarekin identitateei zer gertatzen ari zaienaren inguruan: homogeneous kulturala, zatikatze kulturala, edo hibridazioa. Ekonomia globalak, eta honi loturiko kultura postmodernoak, zentzu-gorputz egonkor bati atxikita bizitzeko aukerak eskatu ditu (erlijioa, ideologia politikoak, klasea, identitate kultural-linguistikoak, familia, lagunartea...), eta norbanako oro ale bakarti bihurtu ostean, zentzuz merkatuak hornituko gaituela diosku (Azkarraga, 2011; Alonso eta Fernández, 2013).

Teoriko postmoderno batzuek muturrera eraman dituzte aipaturikoak. Eta ospatu egin dute identitate sendoen gainbehera historikoa, baita identitate ororen gainbehera ere, horrek identitate zapaltzaileak gainditu eta askatasun indibiduala bulztatuko duelakoan. Edozein zentzu baieztapen ukatzeraino heldu dira, baita identitatearen beraren existentzia ukatzeraino ere (Azkarraga, 2011).

Ordea, beti jakin izan dugu identitateak aldakorrak direla, eta badaude eremu egonkorragoak eta eremu aldakorragoak. Gainera, identitateak harreman-sareetan eraikitzen dira eta, ondorioz, ezin dira hain hautazkoak izan. Boterea ere beti dago identitateen eraikuntzan: denek ezin dute edozer, edozein unetan eskuratu (denak ezin dira noiznahi nonahi nornahi izan). Identifikazio psikologiko inkontzienteen bidez egikaritzen da nortasuna eta egitura instituzionalek oraindik eragin handia dute (familiar, eskolan, profesioan) eta garai historikoak testuinguru kulturala eskaintzen digu, ezinbesteko marko bat (Azkarraga, 2011). Globalizazioa eta teknologiak berriak ezinbesteko testuinguru bat dira, duda barik, baina, horrek ez du derrigorrez esan nahi aurreko identitate kolektibo oro disolbatzen ari denik. Izan ere, kosmopolitismo neoliberalaren aurrean, partikularismo kulturalak ere aldarrikatzen dira, identitate kolektiboak (generoa, erlijioak, etniak, erregioak, neonazionalismoak...), aurrerakoiak ala erreakzionarioak, baita herrien eta berauen ingurune ekologikoaren autokontrola eta subiranotasuna ere (Azkarraga, 2011; Castells, 1997; Gabilondo, 2017).

Izan ere, identitate-oin batzuk (etnikoak, generoa, gay-lesbikoa, nazionala...), Azkarragak aipatzen duenez, politizatu egin ziren, batez ere 1960 hamarkadatik aurrera, eta ekintza kolektiboa antolatzeke oinarri gisa funtzionatu zuten. Jamesonen (1998: 271) esanetan: “El formato temprano de Marx se aplicó a otros sujetos marginales – negros, mujeres, Tercer Mundo, incluso, algo desproporcionadamente, a los estudiantes – cuando se reescribió la doctrina de las “cadenas radicales” durante los años sesenta”. Hots, zenbait talderen marjinazio soziala eta kulturala aldarrikapenerako grina izan zen, eta bazterkeria azalatzuz, sistema sozial, politiko edo kultural osoa kolokan jartzen zen, bere izaera injustua agerian jarritz. Identitate baztertuen harrotasun momentua izan zen: “I´m black, and I´m proud”.

Egungo logika postmoderno eta multikulturalistarekin, ordea, identitate politizatuen papera konplikatu egin da, identitate kultural bat bezala (beste bat) integratzen da, kulturaren eta merkatuan (Del Amo, 2017). Galdu da aldaketa estrukturalak eragiteko kapazitatea, estrukturalak berak onartu egiten baititu:

Sin embargo ahora, con el pluralismo de los grupos colectivos, y por muy “radical” que sea el sufrimiento o la marginación del grupo en cuestión, ya no puede cumplir ese papel estructural, por la sencilla razón de que la estructura se ha modificado y el papel se ha suprimido (Jameson, 1998: 271).

Aldaketa hauek direla eta, identitate kulturaletan oinarritutako ekintza kolektiboak eta politikak (“identity politics”) eztabaidagai bihurtu dira hainbat autorentzat:

La política identitaria postmoderna de los estilos de vida particulares (étnicos, sexuales, etc.) se adapta perfectamente a la idea de la sociedad despolitizada, de esa sociedad que “tiene en cuenta” a cada grupo y le confiere su propio status (de víctima) en virtud de las discriminaciones positivas y de otras medidas ad hoc que le habrían de garantizar la justicia social (Žižek, 2009: 46-47).

La aceptación del pasaporte identitario para negociar el respeto y los recursos es atrapada por los procesos de gubernamentación, en el sentido foucaultiano de gerenciamiento o administración de poblaciones (Yúdice, 2001: 68).

Los multiculturalistas no son unos tontos incapaces de ver que están comprando la revolución en el centro comercial; en todo caso, creen que es posible jugar el juego de la ciudadanía mediante el consumo no solo de mercancías sino, lo que es más importante, de representaciones. Subyacente en esta política de consumo se halla el presupuesto de que existe un adecuado imperio de la ley. La desventaja estriba en que (...) la fuerza performativa (un término que prefiero al de “sociedad del espectáculo”) está sobredeterminada y capitalizada en gran parte por los medios masivos y el mercado, o bien circunscribe a los beneficiarios de la inclusión en redes compensatorias para la distribución de valor (en sectores de la academia, del mundo del arte y del empresariado) (Yúdice, 2002: 201).

Azken krisi kapitalistaren bueltan, ordea, globalizazioak sortutako zatiketa soziala, identitarioa eta kulturala gainditzeko imaginario sozial eta politiko berriak agertu dira, mobilizazio berrietan eta mugimendu politiko populistetan (Del Amo, 2017; Gabilondo, 2017). Izan ere, 2011ko protesta ziklo berrian identitate antagoiniko eta bateratzaileak agertu dira plazetan, izaera komuna eta herritarra goraipatzen dutenak, identitate kultural partikular eta politizatuen gainera: herria edo %99a, elite edo kastaren kontra. Imaginario horien garapena egiten da ezkerreko populismoan eta Katalunia (Letamendia, 2018) edo Eskozia (Azkune, 2016) bezalako mugimendu soberanistetan, non nazionalismo identitarioa eta kulturala baino kontu materialak eta demokratikoak irizpide nagusia diren. Edo modu neo-nazionalista batean, eta identitateen politikek sortutako “pribilegioak” salatuz, eskuineko populismo politikoaren kasuan (Fraser, 2017; Gabilondo, 2017). G

2. EUSKALDUN IZATEA ZEIN NEKEZA DEN³

Euskal identitateaz aritzeak galdera bat dakar: zer da euskalduna izatea? Lehenengo erantzun batek etimologiatik abiatuz hizkuntzara jotzen du: euskalduna da euskara duena. Beraz, komunitate etnolinguistikoki begiratzen dio. Jorge Oteizak buelta bat emango zion definizio honi: euskalduna da euskaraz aritzen dena, edota euskara ez jakitearen estutasuna sentitzen duena. Izan ere, hizkuntza eta identitatearen galera sentimenduak bultzatu egin ditu berpizteko mugimendu kulturalak eta euskal nazionalismoa bera. Eta askotan, mugimendu horien protagonista batzuk ez dira, hizkuntzari dagokionez, euskaldunak izan, Oteiza bera kasu.

Beste erantzun posible bat geografikoa da, komunitate etnolinguistikotik harago doana. Baina honek ere korapilatzen du definizioa (Camus, 2012; Sáenz de Viguera, 2007), geografiari definizio politikoa (nazionala) ere gehitzen zaio eta: EAE? Zazpi lurralde historikoak? Edo sei dira? Euskal Herria terminoa, konnotazio abertzaleak baditu ere, egokia suertatu daiteke lurralde hauek izendatzeko, historikoa eta aldi berean nahiko mugagabea da eta (Sáenz de Viguera, 2007).

Definizioak, gainera, etengabe eraikitzen, berritzen eta berrasmutzen ari dira, euskal identitatearena definizio soziala da eta. Lortzen duen harrera sozialaren arabera doa bere efikazia soziala. Beharrezkoa dugu, beraz, kontakizun historikoa egitea. Eta horretan, adierazpen kultural guztiak sartu behar dira, gure material kulturean (eta identitarioan) “kanpotik” etorri zena ere txertatuta baitago:

Gure material kultureko elementu bakoitzean dago handik eta hemendik etorritako sustrai adar liserituen genealogia nahasi bat. Nahiko zentzu gutxikoa da gaur sektore batzuetan indarrean dagoen eskema: jatorriz ‘geurea’ omen zena eta ‘inposatu zigutena’ bereizteko joera. Dena dugu eratorria, dena dugu nahasia. Inposatu omen zigutena ere bagara. Etorri zena, hartu genuena, ekarri zigutena, ezarri zigutena, aldatu genuena, nahi genuena eta egin genuena gara. Horixe da, hasteko, euskara bera. Eta gure material kultural, etiko, antropologiko, erlijioso, politiko, filosofiko eta krea-tziozko guztia. (Sarasua, 2013: 132-133)

Euskal identitate nazionala, bestetik, XIX. mende bukaeran “imajinatu” egin zen bere forma politiko-modernoan, XVII. mendetik aurrera identitate nazional guztiak imajinatu ziren moduan (Anderson, 1993). Ordura arte, identifikazio nagusiak etnikoak, tokikoak edo erlijiosoak ziren. Dena den, Euskal Herrian nazionalismo politikoaren aurreko bestelako fenomeno politiko bat topa dezakegu: foralismoa. Klase, estratu eta ideologia desberdinen artean, eta bizitza sozialean, oso zabaldua zegoen

3 Ruper Ordorikaren “Zaindu maite duzun hori” kantatik aterata, “Kantuok jartzen ditut” diskoan (2003).

euskal identitate baten oinarri dugu foralismoa (Camus, 2012). Eta honek bestelako adierazpen nazionalista bat ahalbidetzen du: foralista eta tradizionalista.

Espainiar nazionalismoa, berriz, Andersonek (1993) “nazionalismo ofizialak” izendatzen dituenekin bat dator. Hauek XIX. mendearen erdialdetik aurrera azaldu ziren European, printzipio nazional berria eta printzipio dinastiko zaharrak uztartuz. Dagoeneko existitzen zen Estatu baten gainean gertatzen da nazionalizazioa, aniztasun linguistikoa eta kulturala bateratuz.

Andersonen arabera nazionalismo ofizialak ezinezkoak bilakatu ziren, “porque en el fondo eran la respuesta de los grupos de poder – primordial pero no exclusivamente dinásticos ni aristocráticos – amenazados con la exclusión o la marginación en las comunidades populares imaginadas” (Anderson, 1993: 158). Beraz, “la diferencia que hay entre las invenciones del ‘nacionalismo oficial’ y las de otros tipos de nacionalismo suele ser la que media entre las mentiras y los mitos” (1993: 226).

Identitate (nazional) baten definizioa, beraz, aldez aurreko elementu kultural edo etnikoetan oinarritzen bada ere, arrakastatsua izango da populazioaren zati garrantzitsu batek bat egiten duen momentutik aurrera. Izan ere, nazionalismoa, batez ere Estatu estrukturez baliatu ezin den nazionalismo popular linguistikoa, masa fenomeno bat izango litzateke.

XIX. mendeko amaieratik aurrera, beraz, euskal esparru soziala narratiba historiko diferenteek zeharkatuta eratzten da, nazionaltasuna subjektu posizio desberdinetatik artikulatzen dutenak (Sáenz de Viguera, 2007). Horri euskal kontraesan historiko bat gehitu behar zaio: XIX. mendean, eta XX. mendeko 1975era arte, Espainian baino garapen ekonomiko handiagoa zegoen, eratzte politiko ahul batekin. Honek lehenago sartu gintuen modernitatean, garapen desorekatuak dakartzan kontraesanekin. Beraz, XX. mendean desfase bat suertatzen da: ekonomi indartsua, eratzte politiko ahula, eta kulturgintza oinarritik garatuta (Zallo, 2013).

Masa mugimendu izaera oso nabarmena izango zen euskal nazionalismoan, hasiera kontserbadorea eta foralista bazen ere. Mugimendu nazionalistak euskal imaginario garaikideko sinboloak, ikonografia eta beste elementu asko garatuko zituen, aldi berean tabernak diren egoitzak sortuko zituen, gazte eta emakume elkarteak jarriko zituen martxan, baita talde kulturalak eta kirol ekimenak ere, sindikatu batzuk bulztatuko zituen, ikastolen sorrera babestuko zuen... (Camus, 2012).

Izaera popular honek, gehi instituzionalizazio politikoaren ahuleziak, mugimendu politikoak eta kulturgintza lotuko zituzten, oso era emankor batean:

Es más, a diferencia de las culturas satisfechas de los Estados nación, nuestro doble gap (institucionalización dependiente y ausencia de política cultural y educativa hasta el último tercio del XX) ha sido tan inmenso, que explica que los movimientos de defensa cultural, por fuerza se han vincula-

do a movimientos políticos, y viceversa. Se han visto abocados a compensar esas fallas. Ello trae consigo virtudes (situar la cultura y la lengua que se erosionan en el corazón de los programas políticos) y perversiones (riesgos de instrumentalización, de polarización y de desagregación cultural social según afinidades políticas). (...) Fácilmente cabe colegir que si no llega a ser por los vasquismos y nacionalismos del siglo XX “lo vasco” sólo sería un nombre sin sustancia. (Zallo, 2013: 234)

Izan ere, bultzakada popular, politiko eta komunitario honek bermatu du euskal kultura eta identitatearen transmisioa eta berrikuntza:

Son las respuestas políticas las que generaron la conciencia colectiva de identidad cultural y nacional, de comunidad con derecho a vivir como tal, y han salvado esa parte de la identidad cultural. El empuje de la comunidad y su sociedad civil son los que han mantenido un nivel de movilización y voluntarismo cultural que, hoy, en los actuales padres jóvenes ha prendido para la transmisión familiar. (Zallo, 2013: 232)

Dena dela, Ramón Zallok euskal identitatearen oinarri modernoak oraindik eratzeko daudela aipatzen du: “Por orígenes y sentimientos, aún no se han acordado las bases de la identidad vasca moderna ni han desaparecido los riesgos derivados de la situación diglósica del euskara. Hay aún problemas de delimitación e identificación social y de construcción viable de la cultura vasca” (Zallo, 2006: 124). Castilla – La Manchako unibertsitatean irakaslea den Bruno Camus Bergarechek pista bat ematen digu: “es una extraña mezcla entre tradición y modernidad, entre conservadurismo e innovación, lo que caracteriza al País Vasco del siglo XXI y explica en parte las múltiples caras con las que se muestra” (Camus, 2012: 18).

Birsorkuntza edo birmoldaketa kultural honen bidetik, euskal identitatea ere berrasmatu egiten da. Aztertuko duguna, beraz, zera izango da, gure historian zehar izandako (bir)definizioak, gatazkak eta hibridazioak.

Lehen Euskal Pizkundea delakoa XIX. mendeko bigarren erdialdetik XX. mendeko lehen erdialdera arte luzatu zen. Mugimendu hori Hegoaldeko lurraldeetan karlistaldiak galdu eta foruak deuseztatu zireneko galera-sentimenduari dago lotua, erromantizismoaren eragin nabarmenarekin. Bi urte esanguratsu 1918 eta 1919 izan ziren, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiaren sorrerena.

Frankismoko azken urteetan “Bigarren Euskal Pizkundea” delakoa sortu zen, molde eta ezaugarri bereziekin, orain arteko ziklo kultural eta politikoa markatuko zuena:

Gure ustean, 1960 hamarkadatik aurrera euskara eta euskal kultura tradizionalaren aztarnak kultur erakarle sendoak bilakatzen dira, irekiera sinbolikorako ibilbide arrakastatsua jorratzen dutelako, kontrakulturalak, berriak eta berez erakarleak diren beste fenomeno kultural batzuekin era

egokian hibridatzen eta areago mutazio propio interesgarriak eragiteko kapazak direlako. (Larrinaga, 2014: 64)

Aztarna hori jarraituko dugu, euskal identitatearen (eta horren bueltan gatazka eta mugimendu politiko, sozial eta kulturalen) bilakaerak aztertzeko.

3. GENEALOGIATIK HIZKUNTZARA. BERPIZKUNDE (KONTRA) KULTURALA

No es posible concebir un mundo nuevo en común, sin una transformación radical de nuestros viejos hábitos en el pensar y en el sentir, sin una nueva y viva y alerta sensibilidad que no esta común y muerta con la que todo lo aguantamos y que nada le hiere... Si aspiramos a una vida mejor hemos de arriesgarnos y aceptar el compromiso difícil de corregir radicalmente nuestra sensibilidad vital...

(Jorge Oteiza)

1960 hamarkada amaieran, eta 1970 hamarkada hasieran, gatazkek ugaritu egin ziren: laboralak, nazionalak, eta diktaduraren kontrako borroak. Mugimendu sozial, kultural eta politikoen ekimenek elikatu zuten testuinguru honetan, komunitate nazionalista berri bat eratu zen, errepresioaren kontrako jarduerak bultzatuta, eta baita adierazpen kultural berri bat ere, Euskal Kantagintza Berria kasu. Barruan, hiru adierazpen topa ditzakegu batera: hizkuntza eta tradizioaren berreskuratzea, nazioaren berreskurapena zentzu politikoan, eta Oteiza buru duen berrikuntza estetikoa (Amezaga, 1995; Lete, 1977).

Izaera kontrakulturalak, nazioarteko mugimenduetatik edaten duenak, azalduko zuen operazio sinboliko honen arrakasta soziala:

(...) azpimarratu behar dugu operazio sinboliko horren arrakasta –euskara eta euskal kultura sistema sinbolikotzat, edo hobe esanda, komunikazio eta erakapen sistema baliagarria izateko eskaintza sinbolikotzat hartuta, iragana eta errural guneekin lotuta egotetik modernotasunaren marka izatera pasatzea, alegia– bakarrik lor zitekeela baldin eta bere izaera kontrakultural, transgresore eta apurtzailea nabarmentzen bazen. Horrek ekarri behar zuen euskal kultura ofizialarekiko –eta konturatzen gara frankismo peko baldintzetan zaila dela halakorik existitzen zenik pentsatzea– apurketa eta gatazka. (Larrinaga, 2014: 127)

Berrikuntza kultural honek heterogeneitate bat sartu zuen euskal kultura eta identitate tradizionalan. Izan ere, berrikuntza estetikoaz gain, ETAREN fronte kulturalak zutabe bihurtu zuen hizkuntza eta honen berreskurapena. Sabino Aranak bultzatutako nazionalismo genealogiko eta arrazagatikoaren aldean, ETARENtzat euskara

izango zen euskal nazioa eta identitatea definitzeko gakoa, Europako nazionalismo popular linguistikoek egiten duten moduan (Anderson, 1993):

La sustitución de la raza por la lengua no es en absoluto baladí: mientras que la primera es un rasgo con el que se nace y que, por tanto, no se puede adquirir, la lengua se puede aprender, por lo que la construcción de la nación vasca será una cuestión de decisión y voluntad por parte de sus habitantes. Además, esta nueva idea de nación encaja mejor con otros planteamientos nacionalistas de la segunda mitad del siglo XX que contemplan la existencia de naciones culturales y lingüísticas sin Estado que, en tanto que naciones, quedan legitimadas para obtener mediante la autodeterminación la soberanía política. (Camus, 2012: 90)

Garai hartako Euskal Herrian, gainera, Elizak jarraitzen zuen garrantzitsua izaten, batez ere gazteen sozializazio esparruetan, hizkuntza eta aisialdia kasu, eta euskal identitatearen parte inportantea ere bazen. Eta eliza barruan aldaketa karismatiko eta iraultzaile bat ari zen gertatzen Vaticano II kontzilioaren inguruan (Larrinaga, 2014).

Baina beste elementu batek ere astinduko zituen euskal identitatearen definizio sozialak. Izan ere, 1962 urtetik aurrera gatazka gogorrak gertatu ziren langileen eremuan: CAF, Naval, Mina del Alemán, Altos Hornos, Babcock & Wilcox... Debateek isla izan zuten garai hartako – Elizarekin batera – erakunde nagusienetarikoa den ETA erakundearen bere bigarren asanbladan sozialismoa besarkatuko zuen, independentzia eta iraultza sozialista txanpon bereko bi aldeak bezala uztartuz, eta ondorioz identitatearen definizioan beste heterogeneitate bat sartuz (Sáenz de Viguera, 2007). Lantegietatik borrokak hiritar esparruetara ere zabaldu ziren, bizitza baldintzetan hobekuntzak eskatuz. Izan ere, auzotar mugimenduak oso indartsuak izan ziren garai hartan (Herreros y López, 2013; Larrinaga, 2014). Borrokak eta gatazkak, beraz, oso biziak izan ziren:

Y esta intensidad solo puede explicarse, a pesar de las escisiones, por una mezcla absolutamente peculiar de intensidad en las luchas obreras y del calado del nacionalismo más allá de las clases medias acomodadas que suelen ser su bastión. (...) Tampoco en ningún otro lugar se produjo una absorción, aunque contradictoria por momentos, del nacionalismo por parte de unas clases obreras fundamentalmente formadas por emigrantes. (Herreros y López, 2013: 62)

Horrek guztiak jarrera iraultzaile, edo, behintzat, progresista, emango zion identitate berriari. Baina hirugarren elementu bat ere sartu zen euskal identitate berria egosten ari zen lapiko horretan: errepresioa. Nazionalismo komunitario berri bat eratuko zen, errepresio-kontrako terminoetan, bereziki 1968ko abuztutik eta 1971ko erdialdera bitartean, Burgoseko auzia eta European sortutako elkartasun olatua eta gero (Larrinaga, 2016; Letamendia, 1994):

El hecho de ser detenido –o víctima de cualquier represión– no sólo no es un estigma, sino que se convierte en timbre de gloria y capital de prestigio social. Los mecanismos de la solidaridad modifican los límites de la identidad del grupo; surge un ‘nosotros’ nuevo, el ‘nosotros’ objeto de la represión y generador de solidaridades. (...) modifica, y de modo irreversible, las señas de identidad del nacionalismo vasco tradicional (...) (que) quedarán irremediablemente ligadas a la solidaridad anti-represiva y a la oposición a las Fuerzas de Seguridad del Estado. (...) Con ese nuevo ‘nosotros’ anti-represivo que aparece ahora, en palabras de Jaureguiberry, cualquier habitante vasco, sea cual fuere su origen social o étnico, podía conectar y al mismo tiempo hacer suyo, sin más determinación, que su voluntad y su subjetividad. (Letamendia, 1994: 335-336)

Eta abertzaletasun eta identitate berri hau, klandestino izan arren, hegemoniko bihurtuko zen, begi bistakoa. Eta bere identitatea batez ere urratzailea eta errepresio-contrakoa zen.

Estatuaren arlo batzuk modu alternatiboan eta euskal ikuspegi nazional batetik gauzatzen hasi ziren, hezkuntza edo kulturgingintza kasu (Larrinaga, 2016). Baita aisialdia ere: Udalak hasi ziren jaien antolaketa jai batzordeen eskuetan uzten, non talde kulturalak, kirolekoak, edo errepresio-contrakoak parte hartzen zuten. Diru sarrerak lortzeko txosnak jartzen hasi ziren, programazio kultural propioa eskaintzen zutenak, hegemonia politiko eta kultural berria islatuz (Larrinaga, 2014).

Euskara, euskal kulturaren elementuen kontsumoa eta erreproduzio kolektiboa, bai kultura tradizionalarenak bai adierazpen berrienak, eta ikurriña, 1939tik debekatuta, identitate berri honen ikur bihurtu ziren (Larrinaga, 2014; Letamendia, 1994). Identitate berri honen ber-asmaketan, beraz, hainbat osagarri konbinatu ziren: hizkuntza eta kultura tradizionalaren berreskurapena (askotan modu sinbolikoan bazen ere, hizkuntza ezagutu gabe), nazioarteko (kontra)kulturaren eragina, klase gatazkak, eta errepresioaren kontrako jarrera. Hurrengo urteetan aldaketak edo mutazioak etorriko ziren.

4. EUSKAL IDENTITATEAREN GAINEAN TU EGIN: PUNK MUTAZIOA

Erregimenaren erreformak baztertze sentsazioa zabalduko zuen gazte askoren artean 1970 hamarkadaren amaieran (Amezaga, 1995). Espainia aldean trantsizioaren irakurketa adeitsua eta positiboa nagusitzen zen bitartean (Martínez, 2012), Euskal Herriko kaleetan errepresioak eta mobilizazioek (Lemoiz, OTAN...) oso presente jarraitzen zuten (Sáenz de Viguera, 2007).

Aurreko urteetan eratutako komunitate abertzale berria bi zatitan banandu zen. Kultura politiko batek erreformak ematen zituen aukerak aprobetxatu nahi zituen: EIA alderdia, Euskadiko Ezkerra marka elektorala, eta ETA (p-m) erakunde armatua. Beste batek, aldiz, haustura iraultzaile baterako aukerak bazeudela defendatuko zuen: KAS blokea, HB marka elektorala, eta ETA (m) erakunde armatua. Belaunaldien arteko haustura ere bazen. Biek ala biek, dena den, klandestinitatetik zetozen antolaketa moduak mantenduko zituzten, hierarkikoak eta autoritarioak (Larrinaga, 2014).

Baina errepresioaz gain baztertuta sentitzeko beste arrazoi bat ere bazegoen, sozio-ekonomikoa: krisi ekonomikoa, zerbitzu publikoen defizita, gorakor arazo ekologikoak, edo ghettoen sorrera. Euskal Herriko zenbait eskualdeetan gazteen arteko langabezi tasa %40-50a zen. Gurasoak, bitartean, erresistentzian eta borrokan murgilduta izaten ziren askotan, Euskalduna ontzigintza kasu (Herrerros y López, 2013; Larrinaga, 2014; Pascual, 2010). Derrigorrezko soldadutza zen ezinegona sortzen zuen hirugarren arrazoi bat, eta intsumisioaren aldekoa izan zen garaiko mugimendu sozialik garrantzitsuena (Herrerros y López, 2013; Larrinaga, 2014; Pascual, 2010).

Gazte askoren artean (eta asko ziren, “baby boom” belaunaldikoak) egoera anomikoa zen, baina anomia emankorra (Pascual, 2010). Lur ongarriritua izango zen heroinarentzat, eta izan zen, baina baita ere – eta askotan batera – Europan eztanda egin berri zuen punk bezalako adierazpen kontrakultural berriarentzat, “orain eta hemen” komunikatzeko ezin aproposena. Punkak tradizionalismo politiko eta kulturalaren kontra txistua botatzen zuen, eta etorkizunik ez dagoenean dena da posible:

La innovación estilística y el desafío a las instituciones surgidas de la Transición, en realidad un mismo movimiento de rechazo estético-político, suponen la puerta de entrada a actitudes antagonistas para una nueva generación que se ha movido muy rápidamente hacia parámetros sociales y políticos muy diferentes a los de sus padres. Desde la desesperación y el nihilismo de una clase obrera en plena ‘reconversión’ hasta el hastío de una clase media que profundiza su sumisión al mundo del consumo, van consolidando un desenganche con las formas políticas y estéticas del antifranquismo que se va a recomponer como algo cualitativamente diferente. (Herrerros y López, 2013: 156)

Espazio fisikoaren erabilpen berri bat ere jarri zen martxan (“kalea” jendez beteta, zenbait taberna, gaztetxeak...), eta baita komunikaziorako kanal berri eta autogestionatuak ere (fanzineak, aldizkariak, pegatinak, komikiak, irrati libreak, musika bera, disko dendak, kaseteen elkartrukea, kontzertuak, estiloa, hizkera berriak...).

Jakue Pascualek identitate berri(tu) honen sorrera deskribatzen du:

La solución que adoptan un gran número de jóvenes vascos en este contexto, pasa por la elaboración de una identidad propia como colectivo

que funda un ser aparte. El “nosotros oficial” es negado y cuestionado por un “nosotros particular”. El nosotros de la “baska” o la “peña” se opone al “otros” adulto institucionalizado e institucionalizante. (Pascual, 2010: 116)

Dena den, eztanda (kontra)kultural eta sozial hau gatz da azaltzeko aurreko urtetan ereindako kultura antagonista kontutan hartu barik (Herreros y López, 2013: 72), horren gainean gertatzen baita Josu Larrinagak (2014) punk mutazioa izendatu duena. Punkak, aldiz, osagarri berri bat jartzen du mahai gainean: jaia, festa, gozame-na, ospakizuna, eta adeigabetasuna (Herreros y López, 2013; Lahusen, 1993). Eta momentua gozatzeko deiak, aldi berean, utopia berrasmatu zuen, “Euskadi tropikala” lelopean. Festak “euskaltasuna” performance etiliko bihurtzen du, kulparik gabekoa, aitzitik, sarbidea ematen duena:

Implica, desde el momento en el que toman el espacio público con gatzetxes, conciertos, fiestas alternativas, manifiestas y performances tropicales, que lo vasco y lo oposicional no son necesariamente el monopolio de partidos y medios de comunicación, sino que, al contrario, para movilizarlos en nuevas propuestas es necesario salir del delirio de la casa del padre y tratar de operar sobre la narratividad social vasca de una forma creativa y autónoma, en vez de invocarlos como fundación última, como secreto, como ruina, como síntoma. (Sáenz de Viguera, 2007: 255)

Gazte mugimendu berria sortu zen, batez ere, 1950-60ko hamarkadetan Espai-niatik etorritako etorkinak finkatu ziren lekuetan, edo haiekin harremanetan. Gazte punki hauek klase ertain edo langile klasekoak ziren, eta erdaldunak gehienbat (Porrah, 2006). Honek bete betean harreman gatazkatsuak sortuko zituen aurreko hamarkadan (bir)sortutako euskal identitatearekin.

Batzuek, Zarama taldeko Roberto Mosok (2004) kasu, lilura sentitzen zuten erreprimittutako hizkuntzarekiko, eta euskaraz kantatzea momentuko gauzarik pun-kiena iruditu zitzairen, hizkuntza guztiz ondo ezagutzen ez bazuten ere. Baina euskaraz egiten zuten artean ere aurreko urteetatik zetorren euskal identitateari kritika sakona izan zen. Hertzainak taldeak, adibidez, horrela egiten du “Drogak AEK”⁴-an abestian (Atutxa, 2010), euskal identitate ofizialak, biak, tradizionala eta ezker abertzalekoa,

4 Kantuak horrela dio: “Eulixa najak eta oin ez poliziagatik / AEKko baskoek aspertu nabe batuakin / ta patxaranarekin / Egunero klasera joan / ta kolegak kalean / eta arrotza sentitzen naiz / kanutoa zeini pasa / zeini konta kaleko azken mobida / Zetako? Ez dabe entenditzen / ez dia beinbez kaliaz bizi izan / ta ondio ez dabe betiko eskemak / apurtu: Jaungoikoa, lege zaharra / ta HBri botua eman die / Eulixa najak eta drogak nahi ditut AEKn / itsua egoteko baskoak ez ikusteko / Eta oin nerbixu danak / apurtuta jauskat / bertsoak eta trikitixa ikasi bihotz ala? / Hainbeste ahalegindu bihar naiz / euskalduna izateko? / Eulixa najak eta drogak nahi ditut AEKn / itsua egoteko baskoak ez ikusteko (Hertzainak taldeko “Drogak AEKn” abestia, “Hertzainak” izeneko diskoan, 1984)

ironiaz kritikatu (AEK, euskara batua, patxarana, Jaungoikoa, lege zaharra ta HBri botoa, bertsoa, trikitixa, baskoak), eta kaleko kultura eta identitatea aldarrikatu (kalea, mobida, drogak, kolegak, kanutoa, itsua egon, euskalduna).

Ipar euskal Herrian, Kortaturen eskutik helduta, punka bereziki adeigabea izango zen, Patxa mugimendua, Baionan, erreferentzia nagusia izanik: rocka, feminismoa, antimilitarismoa, errepresioaren kontra, jai alternatiboak, eta euskal(dun)tasunaren berrikuntza. Mundu abertzalearekin harremanak oso onak ez ziren izan, edo zuzenean txarrak (Bidegain, 2010).

Sharryn Kasmir (2000) antropologo amerikarrak punkak euskal identitate ez-esentzialista bat berritzen lagundu zuela planteatzen du. Alde batetik, leinuan eta etnizitatean, edo euskal espazio etnikoetan, oinarritutako euskal identitatearen kontzepzio zaharrak behin betiko gainditzen lagunduz, moduak eta pribilegioak, euskaltasunaren ezaugarriak, berrituz. Bestetik, punkak espazio komunal alternatibo bat hartu zuen, non identitate kolektibo berri bat gauzatu zen.

Euskararekin harremana estutzen joan zen, mundu-ikuskerari berri eta konpartitu bat gauzatu:

Éramos urbanos y rockeros y no vivíamos en nada parecido a un caserío. Además había un buen número de maketos y de hijos de familias mixtas de vascos e inmigrantes entre nosotros, y aún así fue el único movimiento que consiguió bajar a la calle la cultura euskaldún y el euskara con grupos como Hertzainak. (Herrerros y López, 2013: 91)

Dena den, gure euskal punk mugimenduaren ekarpenen inguruan iritzi kritikoak ere badira. Potato taldeko kidea izan zen Elena López Aguirre idazlearen arabera, adibidez, punk taldeek kantautoreak bezain aspergarriak izaten amaitu zuten, baina askoz hipokritagoak eta autokritika gutxiagoak: “Nuestros punkis fueron, a menudo, cortos de miras, neuróticos, demasiado arrogantes, poco elocuentes, muy machistas, bastante fanáticos, escasamente autocríticos, con poco sentido del humor, tremendistas y fariseos” (Herrerros y López, 2013: 99). Sharryn Kasmirek (2000) ere izaera matxista hori azpimarratzen du: punkaren hizkuntza eta estetika askatzaileak emakumei baliabideak eskaintzen bazitzaizkien ere, euskal punkak euskaltasunaren bertsio oso maskulinoa aurkeztu du, agentzia eta berrikuntza kulturala gizonei soilik esleitzen diena, espazio sozial eta politiko nagusien maskulinitatea berresten duena, eta nazioaren narratiba maskulinoa idazten duena. Heteronormatibitate maskulinoa instalatu zen arazo barik (Sáenz de Viguera, 2007).

5. EUSKALDUNA NAIZ ETA HARRO NAGO!⁵ EUSKAL IDENTITATE KONTRA-KULTURALA

Hurrengo hamarkadaren bueltan aldaketa berriak etorri ziren. Krisi ekonomiko latza pasata, gazte belaunaldi berri bat ari zen agertzen kaleetan, eskoletan, gaztetxetan edo txosna guneeetan; identitate berri bat ari zen sendotzen (Larrinaga, 2016). Euskarak pisua irabaziko zuen, baita euskal kultura eta nazio izaeraren defentsa (Urla, 2001). Eta identitate berri(tu) hau izango zen euskal kultura eta identitatearen ezaugarri nagusi bat urteetan, Euskal Herritik kanpo imitatuta ere bai.

Identitate (kontra)kultural honen espazio autogestionatuen (gaztetxeak, txosnak) sendotzea ere ekarriko zuen 1990ko hamarkadak. Baita estetika hibridatu batena ere: punk jakak, kolore biziko jantzi hipiak, rastak, mendiko jantziak... Testosteronak kalean jarraituko zuen, kale borrokan (Larrinaga, 2014). Izan ere, gatazka politikoaren militarizazioak aurreko irakinaldi politikoa, anti-autoritarioa eta kontrakulturala, lehortuko zuen (Herrerros eta López, 2013).

6. BRING ME BACK HOME⁶

XXI. mendearen hasierarekin batera aldaketak datoz euskal identitatera, euskal kulturara, eta oro har euskal espazio sozialera. Osagai batzuk agortu eta beste berri batzuk sartzen dira lapikoan. Haietako bat, duda barik, ziklo politiko berria litzateke, baina sorburua baino aldaketa sozialen sintoma litzateke hau, anakronikoa bihurtuko zen fenomeno baten amaiera.

6.1. Hilzori sentimendutik berme sentsaziora: euskal identitatearen instituzionalizazioa

Erakunde autonomikoen sendotzeak euskal(dun)tasunaren instituzionalizazioa dakar. Euskal identitatearen defentsa edo baiezpina ez da hain modu dramatikoan bizi, bermatutzat jotzen da (CEIC, 2005). Honek deslotze eta urruntzeak egiten ditu posible.

Lo vasco, aquello que hace referencia a la lengua y a la cultura vascas, ha sufrido, sin duda, al menos en algunos sectores sociales, una pérdida de significación política en el sentido convencional, precisamente como resultado de la institucionalización política de Euskadi. Para muchos miembros de las

5 Negu Gorriak taldeko "Esan Ozenki" kantatik aterata, "Negu Gorriak" izen bereko diskoan (1990).

6 We Are Standard taldeko abestia, "Great State" izeneko diskoan, 2011.

nuevas generaciones, lo vasco es algo dado por supuesto, algo que se encuentra socialmente garantizado. (CEIC, 2005)

Instituzio autonomikoen pisuak gora egin du euskal identitatearen konfigurazioan, merkatu edo herri eragileen aldean, egoera oraindik oso diferentea izanik EAEn, Nafarroan, edo Ipar Euskal Herrian. Baina eragina nabarmena da euskal identitatean eta horren definizioan; nolabait bermatutzat jotzen da eta horrekiko konpromisoa ez da hain premiazkoa ikusten.

6.2. Estetikaren zentzu galera

Mende berrian ere aurrekoaren amaieran eratutako euskal identitate kontrakulturalen eta berari lotutako estetikaren inguruan aldaketak gertatzen dira. Oro har, identitate (sub)kulturalen eta kontrakulturalen gainbehera bizi dugu; aro postmodernoan estetikari lotutako identitateen zentzuak emateko kapazitatea korapilatu egin da, bai individuala zein politikoa (Del Amo, Letamendia eta Diaux, 2016). Baina horrek eragin berezia dauka euskal identitatean, aurreko hamarkadetan honen osagarri garrantzitsuak izan dira eta.

Ez dakit, lehen tipo bat, Ternua sudadera batekin, Salomon botak eta ez dakit zer prakak.. Osea, estetikoki ja hori aldatu da. Gaur egun pertsona horrek eduki ahal zituen ideiekin bat egiten duen jendea ere diferente jantzen da... Hori Ernaiko militanteetan ikusten da, adibidez. Gu Segin ibiltzen ginean ba dena zen pues todo pintas... chandal, hogeimila belartzeko y greñas y... Gaur egun Ernaiko militanteak ikusten badituzu, ni horretan bai fijatu naiz, estetikoki ba jarraitzen du egoten estetika horrek, baina be bai da beste estetika bat.. Niri gertatu zitzaidan Bilbon aurreko manifi, Ernaiko jendea, ez dakit, pegatinak saltzen edo no sé que.. Eta fijatu nintzen, ostia, ba porque está ahí con el taco, ze bestela Ernaiko izan ahal zenik pertsona hori... Osea, bai eman dela aldaketa bat estetikoki eta orokorrean. (Oliba Gorriak taldeko kideak, elkarrizketa pertsonala, 2014)

Aldaketak anbiguetatea zabaltzen du, baita estetika (eta identitate?) konpartitu baterako aukera ere:

Zabalpen batek, adibidez, eta estetikari bariedade gehiago dela, ba estetika horren atzean dagoena ezagutu behar duzu. Ez dakizu? Lehen ikusita bakarrik bazenekien; orain ikustea ez da nahikoa, orain jakin egin behar duzu estetika horren atzean ze ideia dagoen. Eta hor dago anbiguetate hori, estetika jakin baten atzean egon ahal da, ez dakit, ba ideia borrokalari batzuk, pixka bat filosofia hori, baina igoal igoal egon ahal da ba Euskadi

Gaztearen fan amorratu bat. (Oliba Gorriak taldeko kideak, elkarrizketa pertsonala, 2014))

Espazio kontrakulturaletan, txosnak kasu, identitate kontrakulturala rock estetika eta musikari lotuta egon da, eta horretan ere zabalpen prozesu bat gertatzen da: beste musika eta estetika batzuk sartzen dira. Helburua jendea erakartzea bada ere, aldaketa sozial bat suposatzen du: “Fiestas, txoznas y, en general, los espacios de la cultura se reinterpretan en claves propias del ocio y el relaxo, no de la comunidad y necesidad” (CEIC, 2005).

6.3. Bai baina ez: euskal identitatea, euskal kultura, linboak eta ajeak

- *Todos nosotros tenemos mucha identidad euskaldun... Osea, yo creo que sí pero no. Como personas yo creo que sí, yo creo que todos estamos muy culturizados... y somos, pues eso, muy euskaldunes... Pero lo que hacemos no tiene nada que ver con la cultura vasca. En absoluto. Y no creo que sea malo ni distanciarse de eso. Porque una cosa es... Osea, yo creo que puedes expandirte. No hay que ceñirse a lo que ha sido milenariamente, o lo que... las tradiciones.... No hay que ceñirse a la trikitixa... De hecho, ahora me estoy acordando que en una rave estuvimos pinchando mientras un colega nuestro estaba tocando la trikitixa..*
- *La alboka...*
- *Sí, sí, la alboka, sí, sí, sí.. y fue en plan de... Osea, que todo tipo de mestizaje es bueno y... Gente que ha cantado en euskara, lo que sea y tal... Pero realmente lo que hacemos no tiene nada que ver, y tampoco creo que tenga que ver, osea...*
- *Lo que hacemos es maketo...*
- *No creo ni que lo fomente ni que lo destruya, incluso igual fomentar sí. Porque si nosotros vamos a otro lado y, yo qué sé, pues estamos expandiendo un poco nuestra ideología a medida que hablas con la gente y todo eso...*
(...) El punk y todos los guitarreos han sonado mucho, pero yo qué sé, eso tampoco lo llamaría que es cultura euskaldun, aunque luego sí que se ha integrado y se ha metido, pues eso, dentro de la cultura euskaldun moderna pero bueno, tampoco son las raíces ni tiene que ver.. Sí tiene que ver, pero no...
- *(...) Sería la versión moderna, por así decirlo. Porque si la gente lo quiere encasillar como que eso también pertenece a la cultura vasca, pues sería relativo...*
- *Vasco, vasco vasco pues es la trikitixa, las idi probak y todas la movidas...*
- *(...) Por ejemplo Daddy Jeff, que es uno de los de Selektah Kolektiboa, está haciendo algunas cosas de drum & bass y tal, y ese canta en euskara, tiene algunos*

temas, eso, de drum & bass en euskara, y ¿lo integrarías en la cultura? Bueno, pues si has integrado en punk en euskara y hablando de temática vasca, pues el otro también se integraría... Pues al final es modernización de todo... Yo no lo llamaría a eso cultura vasca... Ni llamaría al punk como cultura... Es que no sé, es un poco relativo... No creo que tenga que ver, ni... Osea, no creo que debería de tener algo, pero...

- *Hombre, sí tiene que ver, tú dirás que no...*
- *Hombre, que no es necesario.. Lo que no creo que esté bien es que una cosa pise a la otra. Osea, una cosa no tiene que distanciarse de la otra, no tiene que pisarla, creo que tiene que convivir junta. (...) Por ejemplo si nos dedicásemos a este género... estuviésemos mirando a Inglaterra, lo que hacen unos o los otros, te pones a hablar, eso, pues en otra jerga, lo que sea, otras vestimentas, no sé qué, y al final te vas distanciando de lo que es una cultura de tu pueblo, pues eso sería pisarlo, ¿no? Al fin y al cabo...*
- *Sustituirlo.*
- *Sustituirlo. Y si esto va creciendo y lo otro va disminuyendo pues sería pisarlo, ¿no? Pues eso es lo que yo entiendo como pisar. Entonces, creo que no tiene que pisarlo... Me refiero, que no se junte con lo otro o que no tenga, que no esté integrado en lo otro, no creo que tenga que pisarlo. Y de hecho ya te digo, como a veces conviven juntos, pues por cómo se siente cada uno... Pues no tiene nada que ver, en absoluto tiene que pisar... no creo que tengas, no creo que tenga que meterse dentro, pero obviamente, eso, al igual que lo del punk ha sido como una modernización... (More Jaia raver taldeko kideekin elkarrizketa, 2014)*

More Jaia raver kolektiboko kideekin elkarrizketa honetan oparo erabiltzen dira euskal identitatea eta euskal kulturaren kontzeptuak. Alde batetik, banandu egiten dira euskal identitatea eta euskal kultura; bestetik, euskal kultura hizkuntza eta kultura tradizionalarekin lotzen dira. Eta honen guztiaren kontraesanak berehala agertzen dira.

Aurreko hamarkadetan izandako definizioek eta gatazkek presente irauten dute nolabait. Musikagintzan, eta oro har kulturaren, izandako aldaketak aztertzen dituen lan batean (Del Amo, 2016) izandako elkarrizketetan agertzen dira modu batean edo bestean. Izan ere, batzuek familiarekin egiten dute lotura, beste batzuek fusioa azpimarratzen dute. “Izan zena eta izaten ari dena”, folkloretik diferentea eta harago doana, aldarrikatzen dute Las Tea Partys Dj kolektiboko neskek. Julen Azpitarte kazetariarentzat “euskal gaiak bakarrik jorratu behar ez dituen kultura” litzateke euskal kultura. Euskararen erreferentziak jarraitzen du garrantzitsua izaten, baina aldi berean hizkuntzatik harago joateko beharra. Erreferentzia geografikoa askotan aipatzen da euskal kultura edo identitatea definitzerakoan: “hemen”. Edota konexio kulturalaren ideia, zeinek ez du zertan beti hizkuntza izan. Modernizazioaren kontzeptua sarritan

aipatzen da, beldur barik egiteko deia ere bai, euskal identitatea dagoeneko definituta eta egonkortuta egongo litzateke eta, *take-for-granted* sentsazioa islatuz.

Dena den, euskal kulturaren barruan auto-kokapena askoz anbigua da, More Jaia kolektiboko kideen arteko solasaldian ikus daitekeenez. Bai baina ez. El_Txe-f_A Djak ere orain dela gutxi⁷ azpimarratzen zituen euskal kultura eta identitatearen inguruan indarrean dauden zalantzak eta ajeak: kanpora doanean jende guztiak argi dauka euskalduna dela eta euskal kulturaren parte dela, baina Euskal Herrian jotzen duenean, aldiz, ez du horrela sentitzen, musika arraroa egiten duenez (elektronika) eta ahots barik (eta hizkuntza barik), bai baina ez... 1960ko hamarkadan sortutako definizioaren ajeak eta linboak, punkak mutazioak sartu bazituen ere.

Fondoan, euskararekiko estrategien inguruko debatea ere badago. Alde batetik, Sánchez Carrión *Txepetxen* nukleoaren teoriaren garapena legoke (Larrinaga, 2007): euskarazko kulturak eta euskarak berak, gutxituta dauden heinean, hiztun komunitateak, sinbolikoak eta harreman-komunitateak, behar dituzte. Eta nukleo horietan eta transmisioan jarri behar da indarra (Sarasua, 2013). Bestelako adierazpenak, honen arabera, linbo batean gera daitezke.

Bigarren estrategia batek euskal kultura eta identitatearen definizio zabalagoak planteatzen ditu, nazionalak (Odriozola, 2017). Adierazpen kultural guztiak hegemonizatuko lituzkeena. Fokua, beraz, ez da soilik edo nagusiki hiztun komunitatea, komunitate geografiko-politikoa baino; euskara enborra izango litzateke, baina ez definitzailea.

Estrategia biak, izan ere, bateragarriak dira. Baina debate hau zabalik egon da, behintzat, 1960 hamarkadatik. Eta sarritan bata edo besteari lehentasuna eman zaio gogoeta teorikoek baino aldaketa sozialek bultzatuta (punkarekin gertatutakoa kasu). Gainera, euskara eta euskal kulturaren galtzeko arriskuak elementu emozionalak sartu ditu eztabaidan.

Txosnagune bezalako espazioetan, dena den, bigarren estrategia honetarako aldaketa egiten ari da azken urteetan, koizientea izan ala ez. Identitate kontrakulturalaren leuntzarekin batera, euskararen presentzia ere aurreko hamarkadetan baino txikiagoa da (identitate horren ezaugarria izan zen 1990eko hamarkadan, hain zuzen ere). Aldiz, jende gehiago erakartzea lortu dute, eta horrek batzuentzat euskararekiko harremana indartu du, batzuetan euskararekin daukaten kontaktu ia bakarra izan daiteke eta. Eta kontu material batetik ere, jende gehiago erakartzeak baliabide gehiago sortzen ditu euskalgintzako eragileentzako, txosna guneetan partaide direnak.

7 “Kantatzen duten herriak” jardunaldiak, UPV/EHUko Leioako campusean, 2017ko abenduan. Horren kronika laburra hemen ikus daiteke: <http://www.nortaldea.eus/es/berriak/kantatzen-duten-herriak-jardunaldiak/> (2018ko urtarrilaren 24an ikusita)

Leire López aktibista eta kudeatzaile kulturalak euskal kulturaren inguruan kontsentsu bat dagoela azpimarratzen du, eta batzuetan euskaraz egindako zenbait adierazpen ere hortik kanpo geratzen dira:

Euskarazko gauza batzuk ere euskal kulturatik kanpo uzten dira. Esan gura dut, hor nik ikusten dut holako kontsentsu handi bat dagoela eraikita gauza batzuen inguruan, eta hori ere Kortatun gaineko artikuluan idazten dut. Ba bertsojaritza gustatu behar zaizu, Benito Lertxundi, Berri Txarrak eta ez dakit zer, ezta? Eta apur bat irteten bazara, segun eta nondik, eta kritika batzuk egiten badituzu, ematen du directamente euskal kulturatik ateratzen zaituztela. Eta nik beti errebindikatu gura dut, gauza asko euskal kultura direla beste batzuk bezain beste eta niretzako inportanteagoa da gaztetxetan egiten den kultura euskal kultura dela, kultura autogestionatua euskal kultura dela eta abar, ezta? Ze azkenean batzuetan ematen du euskal kulturaren gainean berba egiten denean Elkarren gainean egiten dela. (Elkarrizketa pertsonala, 2014)

Eta beste kontu garrantzitsu bat ere aipatzen du, 1960ko hamarkadatik eraiki diren kontzepzioetara jotzen duena:

Nik bai ikusten dut holako, behar izan dela holako kontsentsu... sortzen dabiltzala holako kontsentsu handi batzuk zerikusi asko daukatela herri zapaldu izatearen rollo horregaz, ezta? Eta asko jotzen dela biktimismo horretara. O sea, askotan eraiki dugula gure kultura vs bategaz. Ez garela kapaz gure kultura bere horretan baloretako. Gu vs kultura espainola, gu vs ez dakit zer, ezta? Ez garela geu ere ez entitate bat emateko euskal kulturari bere horretan, behar dugula beste baten aurrean jarri, ezta? Eta niri oso subordinatua iruditzen zait, zure subordinazioa onartuta iruditzen zait.

7. CLOSING TIME⁸

7.1. Mugimenduan

Ikusi dugunez, euskal identitatea etengabe aldatzen ari da, garai historikoak eta tesuingurua aldatzen diren heinean. Eta aldaketa horiek gogoeta teorikoek zein ekimen sozial eta (kontra)kulturelek elikatzen dituzte.

Europako nazionalismo popular linguistikoaren moduan, euskal nazionalismoak, euskal kulturaren artikulazioak, eta ondorioz euskal identitatearen osagai garrantzitsu batek, izaera popularra izan dute. Instituzionalizazio formala berantiarra eta ahula izan

8 Leonard Cohen abeslariaren kanta, "The Future" izeneko diskoan, 1992.

da, eta herrigintza izan dugu artikulazio nagusia, askotan kontra-instituzionalizazio forma hartu duelarik (hezkuntza, aisialdia, komunikabideak, sustapen kulturala, edo ETA bera).

“Modernotasun uzkurra” izango litzateke gurea:

Berriki, Andreas Hess soziologo irlandarrak planteatu du Euskal Herrian dagoen modernotasun eredua “modernotasun uzkurra” izenda daitkeela, hau da mesfidati jokatu dutela historikoki euskaldunek modernotasunak dakartzan aldaketekin, baina, azkenean, hemengo erara moldatua, onartu eta praktikatu dituztela berritasunak, baina beti ere E.P. Thompson bezalako historialariek, modernotasunerantzako ibilbide malkartsu eta gorabeheratsuak egin dituzten kultura plebeiotan, detektatu zuten ekonomia moralaren instituzio batzuk, edo hauen zantzu eguneratuak, mantenduz eta baliatuz. (...) Eta beti elkarrenganako konfidantzan oinarrituriko harreman pertsonalak dira ekonomia moral horren porlana. (Larrinaga, 2014: 231)

Azken hamarkadetan, batez ere EAE-n, instituzionalizazio prozesuak garrantzitsuak izan dira, eta horrek euskal identitatean eragina dakar: euskal kultura eta identitatearen baiezpena ez da hain modu dramatiko batean bizi, instituzioek bermatutzat jotzen da. Xarma ere gal liteke. Dena den, Ramon Zallok (2013) seinalatzen duenez, euskaldunok estrategia bikoitz hori – komunitatea eta instituzionalizazioa – alboratuz gero, dinamizazio popularrik gabeko instituzionalizazioaren aldeko hautua eginez, gure “Talón de Aquiles” ager liteke.

7.2. Ziklo berri bat

1960 hamarkadaren bukaeran Kantauri itsasoaren bazter batean irauten zuen kultura tradizionala eta oso jende gutxi, gehien bat zaharrak, eta, batez ere, eremu erruraletan, mintzatzen zuen hizkuntza minorizatua kultur erakarle indartsuak bilakatu ziren; hasieran, etnogenesi kontrakulturalaren garaian, modernotasunetik harago joateko bidea tradizio eguneratuan bilatu zelako, maila globalean eta lokalean, gero, punk mutazioaren garaian, etnogenesiaren bultzada ezarria zegoen edo ezartzen ari zen ororen kontra joatea bilakatu zelako, galdu nahi ez zutenen zio nagusia. (Larrinaga, 2014: 276)

Gurasoei harrotu, mundua aldatu, Euskal Herria birsortu. 1960 hamarkadan ziklo politiko eta kultural erabakigarri bat jarri zen abian. Hurrengo hamarkadetako lapiko sozial, kultural eta politikoa euskal identitatea berritu egin zen, hainbat osagarriekin: kultura tradizionalaren berrikuntza, hizkuntza, nazioarteko kontrakulturala-

ren aztarnak, klase gatazkak, rocka, festa, harrotasuna, utopia, errepresioaren kontrako komunitatea, autogestioa...

Identitate konpartitu bat eraikitzeke pausuk eman ziren, jatorri ezberdineko jendearen artean ere bai: klaseak, hizkuntzak, errepresioaren kontrako jarrerak edo kontrakulturak, balore eta identitate komunak eraikitzeke parada eman zuten. Arriskuak ere egon ziren, Zallok aipatzen duen bezala: afinitate politikoen araberrako polarizazio eta desagregazio kulturalarena.

Azken urteetan aldaketa estrukturalak egon dira, orokorrak (postmodernitatea eta identitate kulturalen arazoak) eta propioak (instituzionalizazio prozesuak, bide demokratikoen garapena...). Fase berri batean geundeke, aurrekotik abiatzen dena. Osagai berriak lapikoan.

7.3. Diferenteak eta aldi berean unibertsalak izan

Aurreko ziklotik euskal identitatearen gaineko kontzepzioak heldu zaizkigu, baina baita zenbait espazio popular ere. Eta espazio horietan, hain zuzen ere, ondo ikus daitezke beste leku batzuetan 2011ko protesta zikloak, mugimendu soberanistek edota mugimendu populista berriek ekarritako imajinario eta identitate forma berri(tu)ak. Bi zentzutan ikus daitezke, gainera. Alde batetik, arlo kulturalari baino, gune materialei emandako garrantzian (erreferentzia sinbolikoak mantenduta). Bestetik, komunitate eta beharreko toki kontrakulturalak izatetik aisialdi eta lasaitasuneko espazio unibertsalak izatera pasatzean. Zallok apuntatzen zuen arriskua, afinitate politikoen araberrako polarizazio eta desagregazio kulturalarena, gaindituko litzateke nolabait. Euskal kultura eta identitate berri baterako osagaiak izan daitezke.

Aipatutako aldaketa neurri batean praktikoa izan bada ere, inertziek eta beharrek bultzatuta, balizko euskal identitate berri baten inguruko ekarpen eta gogoeta teorikoak ere badira. Bi norabidetan apuntatzen dute, baina ez dute zertan guztiz bateraezinak izan. Adibidez, Imanol Galfarsoren (2008) proposamena, aurrekoari uko egin barik, euskal identitatea balore unibertsaletan ere oinarritzea da. Hau da, fokua euskal berezitasunetik mugitzea, diferente egiten gaitun horretatik, diferentzia kulturaletik alegia. Begirada horrek subordinazioan kokatzen gaituelako. Berak gustuko duen esaldi probokatzailer batean esanda, "Euskalduna desagertu behar da". Euskal identitatea mendebaldeko balore unibertsalekin lotu beharko litzateke, euskal herritar guztiak barneratzeko, identitate komun (nazional) bat osatzeko.

Joseba Gabilondok (2017), bestetik, 2011tik osteko mugimendu sozial eta politikoko global berriekin egiten duen lotura unibertsala, hots, elite neoliberalen kontrako mugimendu eta "sintomekin". Gabilondoren ustean, gure historia ez da unibertsala, baina diferentzian gozatu beharrean, gure partikularitasun hori populismo aurrerakoi

ez-neoliberal eta ez-postinperialista bihurtu behar dugu, elkarrekiko kutsaduraz beste sintomekin (feminismoa, klase borroka, euskara...) bateratuta. Hau da, euskal nazionalismo klasikoa (eta berari lotutako euskal identitate etniko eta kulturala) gaindituz, eta imaginario berriekin lotuz, komunak (nazionalak) eta antagonikoak.

Euskal identitatearen gaineko gogoetan, eta gora beheretan, beste debate batzuk ere nahasten dira, ezinbestean, tartean euskara, nazioa edo nazioartekoak. Euskal identitatea izan beharko litzateke nazionala, etnikoa, antagonikoa, agonikoa, kulturala, unibertuala, edo dena batera. Eta bada. Baina agian galderak ere aldatzen doaz, eta “nor gara gu” edo “zenbat gara” galdera identitarioetan bueltaka jarraitu beharrean, “zer egin nahi dugu?” galdetzeko momentua datorkigu.

8. BIBLIOGRAFIA

- Alonso Benito, Luis Enrique eta Fernández Rodríguez, Carlos J. (2013): *Los discursos del presente. Un análisis de los imaginarios sociales contemporáneos*, Siglo XXI, Madrid.
- Amezaga Albisu, Josu (1995): *Herri kultura: Euskal Kultura eta Kultura popularrak*, Doktorego tesia, UPV-EHU.
- Anderson, Benedict (1993): *Comunidades imaginadas: reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*, FCE, México.
- Atutxa Ordeñana, Ibai (2010): *Tatxatuaren azpiko nazioaz*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Azkarraga Etxagibel, J. (2011): “Identitatea aro globalean. Euskal begiratu bat”, in P. Ibarra eta M.Cortina i Oriol (arg), *Recuperando la radicalidad: un encuentro en torno al análisis político crítico*, Betiko Fundazioa, Barcelona, 113-145.
- Azkune Torres, J. (2016): “Democracia, soberanía y populismo en la unión europea: La emergencia de la izquierda independentista escocesa”, *Clivatge*, 4, 31-60.
- Bauman, Zygmunt (2005): *Identidad*, Losada, Buenos Aires.
- Beck, Ulrich (2006): *La sociedad del riesgo global*, Siglo XXI, Madrid.
- Bennett, A. (2011): “The post-subcultural turn: some reflections 10 years on”, *Journal of Youth Studies*, 14(5), 493-506. <https://doi.org/10.1080/13676261.2011.559216>
- Bidegain Aire, Eneko (2010): *Patxa: Besta bai, borroka ere bai*, Gatuzain, Larresoro.
- Camus Bergareche, Mario (2012): *Para entender la cultura vasca*, Catarata, Madrid.
- Castells Oliván, Manuel (1997): *La era de la información. Economía, Sociedad y Cultura. Vol.2: El poder de la identidad*, Alianza Editorial, Madrid.

- CEIC (2005): *Hacia una nueva cultura de la identidad y la política. Tendencias en la juventud vasca*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- Del Amo Castro, Ion Andoni (2016): *Party & Borroka. Jóvenes, músicas y conflictos en Euskal Herria*, Txalaparta, Tafalla.
- Del Amo Castro, I. A. (2017): “El retorno del pueblo”, in E. Díaz Cano eta R. L. Barbeito (arg), *XV Premio de Ensayo Breve de la Asociación Castellano-Manchega de Sociología “ Fermín Caballero ”*, ACMS, Toledo, 63-85.
- Del Amo Castro, I. A., Letamendia Onzain, A. eta Diaux González, J. (2016): “¿El declive del significado social de la música?”, *Revista Crítica de Ciências Sociais*, 109, 11-32. <https://doi.org/10.4000/rccs.6189>
- Fraser, Nancy (2017): “The End of Progressive Neoliberalism”, *Dissent*, January 2
- Gabilondo Alberdi, Joseba (2017): *Populismoaz. Subiranotasun globala eta euskal independentzia*, Txalaparta, Tafalla.
- Galfarsoro Madariaga, Imanol (2008): *Subordinazioaren kontra*, Pamiela, Iruña.
- Herreros, Roberto eta López, Isidro (2013): *El estado de las cosas de Kortatu: Lucha, fiesta y guerra sucia*, Lengua de trapo, Madrid.
- Jameson, Fredric (1998): *Teoría de la postmodernidad*, Trotta, Madrid.
- Kasmir, Sh. (2000): “From the Margins: Punk Rock and the Repositioning of Ethnicity and Gender in Basque Identity”, in W. A. Douglass, C. Urza, L. White, y J. Zulaika (arg), *Basques in the Contemporary World: Migration, Identity, and Globalization Vol. 1-Basque Culture*, University of Nevada Press, Reno.
- Lahusen, C. (1993): “The aesthetic of radicalism: the relationship between punk and the patriotic nationalist movement of the Basque country”, *Popular music*, 12(3), 263-280. <https://doi.org/10.1017/S0261143000005717>
- Larrinaga Renteria, Ane (2007): *Kulturgintza esparruko eragileen tradizio intelektualak: kulturgileak gizarte mugimenduetan*, Doktorego tesia, UPV-EHU.
- Larrinaga Arza, Josu (2014): *Ttakun eta scratch: Euskal pop musikaren hotzak*, Doktorego tesia, UPV-EHU.
- Letamendia Onzain, A. (2018): “Movilización, represión y voto: rastreando las claves del referéndum de autodeterminación del 1 de octubre de 2017 en Catalunya”, *Anuari del conflicte social 2017*.
- Letamendia Belzunce, Francisco (1994): *Historia del nacionalismo vasco y de ETA. ETA en el franquismo (1951-1976)*, R&B, Donostia.
- Lete Bergaretxe, X. (1977): Euskal kanta berria, *Jakin*, 4.

- Martínez i Teruel, Guillem (koord) (2012): *CT o la Cultura de la Transición. Crítica a 35 años de cultura española*, Debolsillo, Barcelona.
- Moso Gil, Roberto (2004): *Flores en la basura. Los días del Rock Radikal*, Hilargi, Algorta.
- Muggleton, D. (2010): "From classlessness to clubculture. A genealogy of post-war British youth cultural analysis", *Young*, 12(2), 205-19.
- Odriozola Lizarribar, J. Manuel (2017): *Nora goaz euskalduntasun honekin?*, Elkar, Donostia.
- Pascual Lizarraga, Jakue (2010): *Movimiento de resistencia juvenil en los años ochenta en Euskal Herria*, Doktorego tesia, UPV-EHU.
- Porrah, Huan (2006): *Negación punk en Euskal Herria*, Txalaparta, Tafalla.
- Sáenz De Viguera Erkiaga, Luis (2007): *Dena ongi dabil! ¡Todo va dabuten! Tensión y heterogeneidad de la cultura radical vasca en el límite del estado democrático (1978-...)*, Doktorego tesia, Duke University.
- Sarasua Maritxalar, Jon (2013): *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak*, Pamiela, Iruña.
- Urla, J. (2001): "We are all Malcolm X!: Negu Gorriak, Hip-Hop and the basque political imaginary", in T. Mitchell (arg), *Global Noise: Rap and hip-hop outside the USA*, Wesleyan University Press, Middletown, CT, 171-193.
- Yúdice, George (2002): *El recurso de la cultura. Usos de la cultura en la era global*, Gedisa, Barcelona.
- Zallo Elguezabal, Ramón (2006): *El pueblo vasco, hoy. Cultura, historia y sociedad en la era de la diversidad y del conocimiento*, Alberdania, Irun.
- Zallo Elguezabal, R. (2013): "Camus Bergareche, Bruno: Para entender la cultura vasca", *Revista Internacional de los Estudios Vascos, RIEV*, 58(1), 227-236.
- Žižek, Slavoj (2009): *En defensa de la intolerancia*, Sequitur, Madrid.